



Asteburuan, eguraldiari begira

Inauterietan murgilduko dira Andoain eta Urnieta, asteburuan. Ospakizun handiena larunbatean egingo dute bi udalerrietan / 6-9

AIURRI

Arrapala mekanikoak

Arantzubi kaleko lanen hasiera iragarri du Urnietako udalak / 3

**Herriarteko bertsolari-
txapelketa: Andoaingo
Ganbara tabernan
jokatu zen Andoain-
Hernani artekoa** / 11

**Errigora Nafarroako
euskararen aldeko
ekimena omenduko
dute aurtengo
KORRIKAN** / 14



INAUTERIAK
OTSAILAK 13-14
2026
URNIETA

PROGRAMAZIOA ETA INFORMAZIOA HEMEN

**TELEBISTAKO
PROGRAMAK**



Antolatzailea:
**JAI
BATZORDEA**

Laguntzailea:

Urnietako
UDALA



Ontza elkartean egin zuten "Su-artean, Gure-artean", Ontza elkartean, aurreko astean. AIURRI

Jatorri anitzeko herrikideen bilkura

"Ongi Etorri Eskolara" egitasmoaren bidez, "Su-artean, Gure-artean" ekimenaren lehen saioa egin zuten Ontza elkartean. Hitzorduan Kolonbia, Kuba eta Euskal Herriko plater goxoak dastatzeko aukera izan zen. Batetik, Marcela Morales eta Kely Patiño kolonbiarrek

patata entsalada prestatu zuten. Segidan Amarilis Cepedo "Arropa zaharra patatekin" izeneko plater kubatar tipikoaz arduratu zen. Eta, azkenik, bertako hainbat lagunaren artean, goxua postrea prestatu zuten. Familia-giroko bilkura da "Su-artean, Gure-artean".



Marcela Morales, Miren Erkizia, Amarilis Cepedo, Pepe Iparragirre, Luixi Roig, Gari Azpirotz, Itziar Aranberri eta Kely Patiño. AIURRI

"Pagaza", gogoan

Senideen eskariz, jada ez dira Joseba Pagazaurtundua "Pagaza"ren hilketa gogoan hartzeko ekitaldi-irekiak antolatzen. Halere, Andoaingo PSE-EEK lore-eskaintza egin zuen aurreko asteburuan. Gogoan izan behar da Joseba Pagazaurtundua Ruiz udaltzain-burua ETAK hil zuela 2003ko otsailaren 8an. 23 urte igaro dira geroztik.



@PSEANDAIN

INTERNET SAREA

GEDAR.EUS WEBGUNEA

Kongresuaren ondorioak, Basteron



Kongresuko ondorioak Basteron aurkeztu zituzten. GEDAR

Itaiak, Euskal Herriko Emakumeen Antolakunde Sozialistak, ekitaldi bat egin zuen hilaren 7an, antolakundearen I. Kongresuko ondorioak aurkezteko. Andoaingo Bastero Kulturgunean izan zen itxiera-ekitaldia, ehunka emakumeren parte-hartzearekin. "Emakume langileontzako alternatiba iraultzaile bat aurkeztu nahi dugu Euskal Herrian, eta honakoa azken urteetako lan militantearen emaitza da", adierazi zuten ekitaldian. Lehen hitzartzean, egungo testuinguruaz egiten duten irakurketa partekatu zuten Itaiako ki-deek. "Gizarte kapitalistak, etekin ekonomikoak eskuratzeko, ezinbestekoa du langile-klasearen aurkako esplotazioa, eta hor, emakume langileok berebiziko rola betetzen dugu", eta gaineratu zuten: "Emakumeon gaineko esplotazioa negozio-iturri da enpresarietzat". Egoera horretan milaka eta milaka emakume langileren "miseria areagotu" besterik ez dela egiten seinatatzuz, horren hainbat adibide ekarri zituzten gogora: "Lan-baldintza penagarriak; zaintza-zerbitzuen murrizketak eta pribatizazioek gudan eragiten duten zaintzaren gainkarga; instituzioek eskaintzen dituzten diru-laguntza gero eta murriztagoak...". Era berean, estatuen biraketa autoritarioa eta horren eskutik datorren faxismoa zabaltzen ari direla azpimarratu zuen antolakundeak. "Emakume langileon aurkako neurri zuzenak hartzen ari dira eta matxismoa bera ukatzen dute. Diskurtso atzerakoi eta kontserbadore horiek langile-klaseko kolektibo zaurgarrien bazterketarako oinarriak jartzen ari dira, ideia supremazista eta arrazistak hauspotuz, LGTB kolektiboaren aurkako gorroto-diskurtsoa eta biolentzia zabalduz eta jarrera matxista eta misoginoak indartuz".

Horiek horrela, emakumeon eskubideen aldeko borroka instituzionalizatu egin dela eta, emakumeon zapalkuntza gainditzeko, ikuspegi iraultzailea galdu egin dela ohartarazi zuen Itaiak: "Guk balioan jartzen ditugu milaka emakumek gure eskubideen alde egindako borroka eta ahalegin guztiak; are gehiago, horrek guztiak eskubide kolektiboak eskuratzeko eta emakumeon askapenaren aldeko kontzientzia hedatzeko balio izan zuen".

Martxoak 8

Itaia aurtengo Emakume Langileon Nazioarteko Egunean ere Euskal Herriko herri ugarian mobilizatuko da, "Emakume langileok askatzeko, batu borrokara" lelopean. Borroka-eguna dela nabarmenduz, aldarrikapenak desitxuratzen dituzten horiek seinlatu ditu berriz: "ezin dugu inolaz ere onartu eguna erakundeen eta enpresen agenden baitako egun protokolariora izatea. Borroka egun batek ez luke kontsentsua bilatzeko izan behar, eta ezin du gizartearen batasun abstraktua bilatu. Kontrara, gure pobrezia arduradunak, erasotzaileak, objektu gisa tratatzen gaituztenak zein gure aldarrikapenak edukiz husten dituztenak seinaltatzeko eguna da".

Arrapala mekanikoak, Arantzubin

Egunerokoan, herritar ugari gaingitu behar dute Idiazabal eta San Juan kaleen arteko malda. Adin batera iritsita, zailtasun nabarmenena Arantzubi kalean dago. Irtenbidea arrapala mekanikoak ezartzea izan da



Aste honetan aurkeztu dute arrapala mekanikoa jartzeko egitasmoa. AIURRI

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Azpiegitura berria da, egungo espaloiak eta aparkalekuak berregokitzea eskatuko duena. Egunerokoan Arantzubi kaleko penditza igo behar duten bizi-

lagunen joan-etorria arintzeko obra iragarri du Jorge Segurado Urnietako alkateak, aste honetan, udaletxean deitu zuen prentsaurrekoan. Ez da, ez obra txikia izango: milioi eta hirurehun

euroko aurrekontua izango du, arrapalak jartzeaz gain, hornidura sarearen desbideraketa lana egin behar baita. Gauzak ondo, bederatzi hilabeteko epean gauzatu nahi dute lana.



Jorge Segurado eta Ana Pozas, prentsa-agerraldian. AIURRI



Arantzubi kaleko penditza %15ekoa da. AIURRI

Nola ekingo diote lanari? "Lanak hiru zatitan banatuta eta behetik gora egingo dira, herri-tarrei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko. Eragin horiek modu zehatzean jakinaraziko dira unea iristen denean", adierazi zuen Seguradok pleno-aretoan egindako agerraldian.

Arrapala mekanikoen eraikuntza-lanek iraun bitartean inguruko aparkalekuak balio-gabetuko dituzte, eta galera hori arintzeko, Udalak Plazido Muxika plazaren zati bat ahalbidetuko du, behin-behinean, ibilgailuak bertan aparkatzeko.

"Urnietako Udalak mugikortasun eta irisgarritasun hobekuntza bultzatzen jarraitzeko konpromisoa berresten du, pertsonekin atseginagoa den herri bat eraikitzeko asmoz", azpimarratu zuen alkateak agerraldian, eta gogora ekarri zituen mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko beste zenbait ekimen. Hala nola, igogailuak Eteneta-San Juan, Urraka eta Idiazabal-Errekalde eremuetan eta Idiazabal kalearen bulebarizazioan emandako urratsak. Xede horretan, Arantzubi-koarekin "jauzi kualitatiboa" eman nahi dute.

Aiurrikide izatea %30 merkeago

Aiurrik **lehenasunezko mezenasgo jarduera izendapena** jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Aiurriko harpidedun zaren horri, **zerga onurak ezarriko zaizkizu 2025eko jardueran** Aiurri egin diozun ekarpenarengatik.

Horrenbestez, zure kuota **%30 merkatuko** zaizu errenta aitorpena egiterakoan.



Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI
KIDE**



Zuriñe Lorenzo Amiama eta Urko Miguel Galparsoro, Eguneko Zentroko dinamizatzailea eta koordinatzailea. AIURRI

"Erabiltzaileak pozik eta gustora daude Eguneko Zentroan"

ZURIÑE LORENZO AMIAMA ETA URKO MIGUEL GALPARSORO EGUNEKO ZENTROA Autonomia mugatuta eta mendekotasuna duten Andoaingo pertsonen zuzendutako zerbitzua da, eta erabiltzaileei arreta individualizatua eta integrala eskaintzen diete

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

EULEN enpresak kudeatzen du zerbitzua eta bi protagonistak eskarmentu handiko profesio-nalak dira.

Eguneko Zentroa hizpide dugunean, zehazki, zertaz ari gara?

Urko Miguel Galparsoro. Gutxieneko menpekotasuna duten pertsonen baliatu ahal dezaketen zerbitzua da. Foru Aldundiak egiten du menpekotasun azterketa hori eta 1.1 mailakoa duen edonork erabili dezake zerbitzua. Autonomia izan eta menpekotasunik ez duen adinekoarentzat beste zerbitzu batzuk daude, hala nola, arreta zerbitzua.

Zuriñe Lorenzo Amiama. Hogeita bi aitona-amonak dira Eguneko Zentroa baliatzen dutenak. Goizeko 09:30etan hasi eta arratsaldeko 17:45ak arte gurekin izaten dira. Bazkaria eta merienda bertan ematen zaie eta, nahi duenak, dutxa hartzeko aukera badu. Dinamizazio ariketak egiten ditugu memoria lantzeko eta baita tailerrak eta jolasak egin ere. Horrez gain, baratze txikia badugu. Eguerdia iritsita, bazkaria San Juan Bataiatzailetik ekartzen dute. Ondoren siesta egiteko aukera dute eta, arratsaldean, dinamizazio ariketa gehiago egiten dira. Astelehenik ostiralera, 22 lagun hurbiltzen dira Eguneko Zentrora. Asteburuetan, 10.

Urko Miguel Galparsoro. Zerbitzuak ondo dioten bezala, eguna bertan igarotzen dute. 8 langile ari gara lanean. Gehienak laguntzaileak dira eta, haiez gain, bi dinamizatzaile eta neu koordinatzaile lanetan. Asteazkenero eta ostiralero, aipatu langileez gain, psikologoa hurbiltzen da.

Nor da eskatzailea?

Urko Miguel Galparsoro. Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du dependentzia mailaren azterketa eta itxaron-zerrendaren kudeaketa Udaleko Gizarte Zerbitzuaren ardura da. Andoaingo eskaera handiagoa da, eskaintzarekin alderatuta. Baina eskaera guztiari erantzun ahal izateko eraikin eta baliabide handiagoak beharko lirake.

"EGUNEKO ZENTRORA DATORREN PERTSONA ZERBITZUAREKIN GUSTURA EGOTEA DA GAKOA"

Etxean bertan jaso eta uzten dituzue erabiltzaileak. Nola antolatzen da hori?

Zuriñe Lorenzo Amiama. Zerbitzu hori eskaintzen da, bai. Baina beste enpresa bat dago horretarako. Garraioa ziurtatzen diote eskatzaileari baina ez dira gutxi hona oinez hurbiltzen direnak. **Zein pertsonentzat da egokia, oro har, zerbitzua?**

Zuriñe Lorenzo Amiama. Zerbitzuari zuku handia atera diezaiokenearentzat, lehenik eta behin. Gure ustez, hainbat profil aztertuta, kasu batzuetan ez da behar beste aprobetxatzen Eguneko Zentroak ematen dion aukera. Ariketak, irteerak... horietan guztietan parte hartu dezakeenarentzat gomendagarria da.

Urko Miguel Galparsoro. Zaintzari dagokionez, azken urteotan, al-daketa asko eman da. Maspalomas filmak bikain jasotzen du hori. Arretari dagokionez, garapen handia eman da. Andoaingo, esaterako, familiaren behar-arrak asebetetzeko geunden baina hori aldatuz joan da eta, orain, erabiltzailea bera zerbitzuaren erdigunean jarri dugu. **Harreman estua izaten duzue familiarekin?**

Urko Miguel Galparsoro. Halaxe da, bai. Bereziki, erabiltzaileak hasiberriak direnean. Hasieran oso gainean egoten dira etxeok, egoera egonkortu arte.

Erabiltzaile baten senideen eskertzak jarri gaitu zuen pistan. Jasotzen duzue haien asebetetzea?

Urko Miguel Galparsoro. Urte haue-tan guztietan eskertza-mezu asko jaso ditugu. Denekin ez dugu berdin bukatzen, kasu bakan batzuetan jabetu gara hemen eskaintzen diren baliabideak ez direla behar bezala aprobetxatzen eta, kasu horietan, gizarte lan-gileak eta Aldundiak horren gaineko balorazioa egiten dute. Beste zerbitzu bat jasotzeko aproposagoa izan daiteke eta, horrelakoetan, Eguneko Zentrotik atera egiten dira. Kasu horietan, batzuetan, familiak ez du begi onez ikusi erabakia. Baina, esan bezala, erabiltzaileari begira ari gara lanean. Hona datorren per-sona gustura egotea da gakoa.

"ZERBITZUA PROBATZEKO AUKERA EMATEN DU ANDOAINGO EGUNEKO ZENTROAK"

Halere, orokorrean, familien esperientzia oso ona izaten ari da. Egun, oraindik ere, zerbitzu hau baliatu duten erabiltzaile askoren senideekin harremanari eusten diot, kalean elkar ikusten dugunean.

Adineko jendea hiltzea gerta daiteke. Zuentzat ere kolpe bat da hori.

Urko Miguel Galparsoro. Bai, bai. Egunero hemen izaten dira eta harremana sortzen da. Eragina du gudan baina baita gainerako erabiltzaileengan ere.

Bertan lanean aritzeko bokazioa izatea ezinbestekoa da?

Zuriñe Lorenzo Amiama. Bai, oso garbi daukat hori. Formakuntza izatea beharrezkoa da baina langintza honetan aritzeko gustuko lana izatea behar-beharrezkoa da. Gu baikara hona lanera etorri eta zoriontasuna zabalteko zeregina duguna.

Zalantzan dagoen senideei zer esango zenieke? Dudan dagoenak zer egin dezake? Zein pauso eman behar du?

Zuriñe Lorenzo Amiama. Adinekoak euren bizitzaren azken atalean daude eta bidea ahalik eta politena izaten lagundu behar diegu. Gustura egon daitezen lan egiten dugu. Etxea eta familia ez direlako aukera bakarra.

Urko Miguel Galparsoro. Zerbitzua probatzeko aukera ematen du Eguneko Zentroak. Gustura ez dagoenak utz dezake, hori ez da arazoa. Aukera hori beti oso presente dugu hemen. Normalean, hasiera batean, zerbitzu hau baliatu nahi ez duen adinekoak proba egin eta, gehien gehienetan, bertan jarraitzea erabaki du.

Isolamendutik ateratzea, sozializazioa sustatzea, etxekoei karga arintzea... zein onura ditu hona etortzeak?

Zuriñe Lorenzo Amiama. Horiek guztiak. Esperientziak eta bizi-penak partekatzen dituzte Anbrosia Olabide eraikinean. Familiari karga arinduko zaio, bai, baina horri baino gehiago erreparatu behar diogu erabiltzailearen sentipenari. Gaurkoz, gehien-gehienak, pozik eta gustura daude, gure artean, Eguneko Zentroan.

"ASTELEHENIK OSTIRALERA 22 LAGUN HURBILTZEN DIRA EGUNEKO ZENTRORA"



Taldeko argazkia, Anbrosia Olabide eraikinean bertan ateratako argazkian. EULEN



Jolasak, eskulanak, tailerrak... aukera zabala dago Eguneko Zentroan. EULEN



Baratzea dute Eguneko Zentroan. EULEN



Juli Perez Cambero. INMA DELGADO

Eskertza-mezua

Juli Perez Cambero 2025eko urrian zendu zen, eta 14 hilabetez Andoaingo Anbrosia Olabide Eguneko Zentroaren erabiltzailea izan zen. Senideak eskertuta daude amak jaso zuen trataerarekin: “zoriontsua izan zen Eguneko Zentroan. Maitasun handia erakutsi zioten bertako langile guztiek”. Eskertza lan talde osoari zabaldu diote: harrerakoak, txoferra nahiz laguntzailea, egoitzako gizarte langileak, arduradunak..., guztien profesionaltasuna nabarmendu nahi dute. Andoaingo familia askotan adineko kidea zerbitzu horietara bideratzeko erresistentzia egon daitekeela eta, urratsa eman eta probatzera gonbidatuko lituzke Inma Delgadok, Juliren alabak: “ama oso gustura zebilen han antolatzen ziren jardueretan. Bertan egiten zirenak, hala nola, bingoa edo baratzea lantzea. Eta baita kanpoan egiten zirenak: Oriora edo Sagardoetxera egindako irteerak, adibidez”. Eguneko egoitza ezagutzeko jardunaldi irekietara hurbiltzea aukera baliagarria dela deritzo, zerbitzua bere osotasunean hobeto ezagutze aldera.



Ondarreta Herri Eskolako ikasle taldea, Juanita Alkain plazatxoan. AIURRI



Gora Kaletxiki Txarangak girotu zuen ospakizuna. AIURRI



Kale Nagusian barrena ibili ziren kalderero txikiak. AIURRI

Kalderero txikiak, kalez kale

Ondarreta Herri Eskolak tradizioari eutsi eta Kaldereroen kalejira egin zuen aurreko ostiralean. Aurten, gainera, hori izan da ospakizunari loturiko hitzordu bakarra. Zartagin hotsak, beraz, ez dira erabat itzali

Xabier Lasa ANDOAIN

Haritxo batetik zintzilik bada ere, Andoaingo Kaldereroen ospakizunak bizirik darrai. Aurten, Ondarreta Herri Eskola izan da tradizioa biziberritu duena ez baita beste kalejirarik egin. Iku-si behar etorkizun hurbilean ospakizunak jarraipena izaten duen, ala ez. Ostiralean, bazkaloostean, ikasle gazteak Hungariako pertsonaia ezagunez mo-zorroto –eta zartagia eskuetan zutela– eta kalejira-zaratatsuan irten ziren, Kale Nagusian barrena, Zumea kaleraino. Atzera buelta egin zuten, segidan, Plaza Moreraino. Herri Eskolan hasi eta amaitu zen kalejira, Gora Kaletxiki txarangak lagunduta.



Ikasle taldea, Kale Nagusian. Gainerakoak Isidro Langara zubitik barrena zetozen. AIURRI



Herrigunean ibili eta gero, eskolara itzuli ziren kalderero txikiak. AIURRI



andoa**INDARRA**
euskaraz



Larunbaterako bazkaria antolatu du Poxta Zahar taldeak, San Juan plazan. AIURRI

URNIETAKO INAUTERIAK



Askotariko mozorroak ikus daitezke Urnietako inauterietan. AIURRI

Urnietako inauterien egun handia, larunbatean

Ostiralean gaztetxoak murgilduko dira inauteri giroan, Gaztelekuaren eskutik. Udalerrri osora zabaldutako festa handia, berriz, larunbatean izango da. Jai Batzordeak eta Urnietako Udalak goizean hasi eta ordu txikietaraino luzatuko duten egitaraua prest dute

Erredakzioa URNIETA

Urnietako mozorroen egunaz gozatzeko prestatzen ari da. Udalak eta Jai Batzordeak egun osoko egitaraua prest dute eta, gainera, goizeko 11:00tan hasita, Idiazabal kalea oinezkoentzat egokituko dute. Inauteriaz gozatu nahi duenak aukera bikaina du larunbatean.

Askotariko mozorroak ikus-tera ohituta gaude. Izan daitezke antolatzaileek proposatutakoaren sokakoak, ala bestelakoak. Tebista programak eta baserria dira herriko eragile nagusien proposamenak. Hortik aurrera, mozorroa prestatzeko, irudimenak adina aukera dauka. Larunbata hiru atal nagusi

sitan banatuko dela esan daitezke. Eguerdian hasita, herri-bazkariak gozatzeko gonbita luzatu du Poxta Zaharrek. Arratsaldean, Bosko Anitz txarangak bideratuta, kalejira abiatuko da San Juan plazatik. Eta, iluntzea eta gaua, jai disko-jartzaileen saioekin luzatuko da.

OTSAILAK 13

OSTIRALA

17:00-18:00 Merienda.

18:00-19:00 Mozorro lehiaketa.

19:00-20:00 Sari-banaketa.

OTSAILAK 14

LARUNBATA

11:00 Kalejira Txanbolin txistulari bandarekin.

12:00 Karropoteoa Poxta Zaharrek antolatuta.

14:00 Herri-bazkaria, Poxta Zaharrek antolatuta, plazan. Euriarekin, Plazido Muxikan.

17:00 Mozorro kalejira Bosko Anitz txarangarekin, plazatik abiatuta. Euriarekin, Egape ikastolako jolastoki estalian.



18:00 Txaranga Poxta Zaharrek antolatuta.

19:00-22:30 DJ Ostoa, Idiazabal kalean.

23:00-02:00 DJ saioa, Poxta Zaharrek antolatuta, Idiazabal kalean.



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietako).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizuntza Berdintasunerako Zuzendaritza




EUSKO JAURLARITZA GOBERNU VASCO. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAIA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Urnietako
udala



Kale erdian, espaloian... mozorroak nonahi ikusiko dira asteburuan. AIURRI

Igandera bitarte luzatuko dira inauteriak Andoainen

Ostegun Gizenean, gehienbat, ikasleak murgilduko dira ospakizunetan. Asteburuan, berriz, udalerrri osoa

Erredakzioa ANDOAIN

Bertan dira inauteriak, neguko festa handienak. Andoainen, gainera, lau egunez luzatzen dira, ostegunetik igandera. Andoingo Udalak eta herriko eragileek egitaraua prest dute eta, gutxi-asko, festazale gehienek ondotoxo dakite jaiaren muina zein den: mozorrotzea da lehen urratsa. Eta, hortik aurrera, gozatzea.

Gune egokituak

Mugikortasun mugatua duten pertsonak desfilea ikusteko gu-neak izango dituzte Zumea kalean, Juan Bautista Erro kalean eta Goikoplazan.

Bertxin elkartearen bazkaria

Adinekoen elkarteak bazkaria antolatu du Oianumen. 13:30ean hitzordua jarri dute, elizaren atzealdeko geltokian, busean joateko asmoa baitute.

Gaueko bus zerbitzua

Larunbatetik igandera gauean bus zerbitzua antolatu du Udalak. Agustin Leitzia 1 geltokitik irtengo da eta ibilbidean Sorabillaraino joango da. Geldialdiak eskaeraren arabera egin daitezke.

Erasoen aurrean, arreta

Erasoen aurreko arreta-zerbitzua martxan izango du Udalak. Honako hau da telefono-zenbakia: 676 567 724.

Argazki lehiaketa

Datorren urteko egitarauaren azalean argitaratzeaz gain, 350 euroko saria irabaziko du argazki onenaren egileak. Martxoaren 23an aurkeztu behar da lana Bastero Kulturgunean. Oinarriak Andoain.eus webgunean kontsulta daitezke.

Inauterien jarraipena egingo da, bestalde, Aiurri.eus gunean.

ANDOINGO INAUTERIAK



Zirkua, iazko inauteri desfilean. AIURRI

OTSAILAK 13

OSTIRALA

15:45 'Con faldas y a lo loco' filma Bertxin elkartearen.

17:00 Lebiton Buruhandi eta Erraldoien Konpartsa, kalez kale.

17:30 Inauteritako Bingo Berezia Gazte Lokalean.

20:00 Malkogarriyak taldea, zuzenean, Goikoplazan.

OTSAILAK 14

LARUNBATA

11:00 Mozorroak eta konpartsak kalez kale agertzen hasiko dira.

13:30 Bertxin elkartearen bazkaria Oianumen. Irteera, San Martin eliza atzealdetik, autobusean abiatzeko.

17:00 Inauteri desfilearen hasiera,

Gora Kale Txiki txaranga-ekin batera. Ibilbidea: Karrikatik Goikoplazara. Ondoren konpartsak herrian barrena ibiliko dira, gaueko 22:30ak arte.

22:30-02:30 DJ Nemux Goikoplazan.

OTSAILAK 15

IGANDEA

09:00-20:00 'Super blood bowl' 2026 txapelketa eta mozorro lehiaketa, Enderen Jokoa Elkartearen.

12:00 Mozorroak eta Konpartsak, kalez kale.

14:00 Bazkaria, Goikoplazan. Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Lekua eta txartelak alde



aurretik hartu behar dira Bastero Kulturgunean.

19:30 Sardinen segizioa, Goikoplazatik abiatuta.

20:30 Sardinen ehorzketa eta inauterien amaiera, Goikoplazan.

Inauteriak

Atal berezia **Aiurri.eus** gunean

Agenda, argazki-bildumak, bideoak

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI
KIDE**





Juan Vicente, Amaia Bakero, Arkaitz Muratori eta Aitor Arruti, Aranaztegiko karrozen biltegian. AIURRI

Dena prest desfilerako!

Larunbateko desfilean parte hartuko duten 18 konpartsen artean daude leup!, Kaxettes eta Kaletxikitoak. Aitor Arruti, Juan Vicente, Amaia Bakero eta Arkaitz Muratori aurkitu ditugu karrozak prestatzeko Udalak egokitu duen biltegian

Xabier Lasa ANDOAIN

Aranaztegi industriagunean biltegi batean ari dira azken asteetan konpartsetako kideak beren karrozak prestatzen, eta laukotea topatu genuen joan den astelehen iluntzean.

Ez batzuk, ez besteek, ez dute agerian jarri nahi izan zertaz joango diren moztortuta larunbatean, jakina. Ezustekoa eman nahi die espaloietan pilatuko diren inauteri zaleei.

Nolanahi ere, ziurtatu dute mimoz eta arretaz aritu direla lanean azken asteetan prestaketa lanetan, eta ezustekoa, harri-dura eta barreak eragingo dituztela ikusleen artean.

leup!

Ieup! karrozako Arrutik aztarren bat edo besterik ez digu eman, “Euskal Herriko eta Andoaingo jaietako (Santakrutzetan behin-

tzat bai) paisajean ezinbestekoa bilakatu den osagaia hartu dugu gaitzat. Ezin da gehiago esan. Hori bai, gurea ikusi orduko, agudo harrapatuko gaitu ikusleak”.

Inauterizaleek gogoan edukiko dute Ieup! Konpartsak aurreko urtetan atera dituen zenbait moztorro. Bilboko Athleticceko kamiseta eta banderarekin gabarran irten zireneko hura, edota baserriko oiloz jantzi zireneko beste hura, esate baterako. Euskal ohiturekin, tradizioekin, kirol-zaletasunekin... zerikusia duen gairen bat hartzea dute gogoko. “Euskal kutsuko edozeri heltzen saiatzen gara; nahiko baserri-girotik gatzoz, eta natural ateratzen zaizkigu moztorroarako-gaiak. Hori bai, parodia zale samarrak gara izatez, eta geure buruaz barre egiten saiatzen gara lehen-

biziko eta behin”. Desfilean barrera ondo pasatzea helburu duten arren, espaloietako ikusleak zirikatzea ere beren ikuskizunaren parte badela gogorazi du Arrutik. “baserriko animaliez jantzi ginen hartan, lastoa eta pentsua jendeari jaurti genien umore puntu batekin, eta antzekoa egiteko asmoa daukagu oraingoan ere”.

Kaxettes

Kaxettes karrozako Juan Vicentek ere apenas eman digun argibiderik zertaz jantzita joango diren galdetu arren. “80ko musika jarriko dugu, eta dantzasaioak egingo ditugu ibilbidean barrera. Horretarako, koreografia ikasten aritu gara aurreko egunetan. Hamabi heldu eta haur batek osatzen dugu taldea, eta egia esanda, hobekiago moldatzen dira emakumeak. Igande

ilunabarrean, karrozak dauden biltegitik kalera atera eta gasolindegira ondoan entsegua egiten aritu ginen; barre ederrak egin zituzten gure kontura inguruan zebiltzan kamioilariak!”.

Vicentek adierazi duenez, laun-kuadrilla desberdinetako kideak espreski biltzen dira Andoaingo Inauterietan. Jada urte mordoa daramate elkarrekin ospatzen jaiak; “karroza baino, indarrez tiraka garraiatu behar den karro bat etortzen zaigu primeran gure ikuskizuna antolatzeko, eta ideiak ere ez zaizkigu agortzen”. Telebistako “Tentazioen Irla” saioa, txomin-geroak, cale-ak... izan dituzte moztorro gai, besteak beste.

Kaletxikitoak

Nahiko beterranoa da Kaletxikitoak konpartsa. Bere izenak agerian uzten duen moduan, Kaletxiki auzokoak dira bere kideak. Tartean dira Amaia Bakero eta Arkaitz Muratori. “18 bat heldu eta bi ume aterako gara karrozarekin. Garai batean zalaparta handiago aterako genuen kalean seguruenera, izan ere gure haur guztiekin irteten ginen. Haur horiek orain 20 urtetik goragoko gazteak dira, eta nahiago izan dute beren kuadrillekin ospatu inauteriak; ondo itsatsita daukate moztortzearen kultura!”, adierazi du Bakerok.

Konpartsaren dinamikak bere errituala eskatzen duela gogorarazi du Bakerok; ezin duela izan bat-bateko kontua; alegia, inauteri egunekin gozatzeko ezinbesteko baldintza dela aurretik seriotasunez hartzea ardurak. “Abenduan egiten dugu lehenbiziko bilera. Nork bere ideiak ekartzen ditu mahaira, eztabaidarako jartzen ditugu

eta bozkan irabazten duenari heltzen diogu. Hortik aurrera, poliki-poliki joaten gara moztorroak prestatzen, abestiak aukeratzen eta koreografia diseinatzen”.

Andoaingo inauterietako desfileei une gogoangarriak ekarri izan dizkie Kaletxikitoak konpartsak. Nor ez ote ditu gogoan, esate baterako, Agata Ruiz de la Prada diseinatzailearekin edota Michael Jackson eta bere Thriller bideokliparekin egingako parodiak?

Bara, datorren larunbatean kaleratuko duten antzerki edo karikatura haien parekoa edo hobeia izan dadin saiatu direla esan du Bakerok. Zer ote den ez argitu arren, herri sinismenekin, misterioarekin, izuarekin... identifikatu litekeen gaia izango dela zehaztu du.

18 konpartsa, larunbat arratsaldeko desfilean

Dozena eta erdi konpartsek osatuko dute Karrika auzoan hasi eta Goikoplazan amaituko den desfilea. Hurrenkera horretan irtengo dira, arratsaldeko desfilean:

1. Kaxettes.
2. Klaap.
3. Army Men.
4. Gu Geu.
5. Kolokaitos.
6. Fron.
7. Batukada.
8. Poperoak.
9. Kilikolo.
10. Gibson Taldea.
11. Kaletxikitoak.
12. Ieup!
13. La Salle.
14. Lupercales.
15. Pelotok.
16. MG Taldea.
17. Zumablokura.
18. Adabebu.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa





Arratsaldean hasi eta iluntzera bitarte kantuan aritu zen herritar taldea. Argazki sorta eta abestia Aiurri webgunean ikusgai.

Santa Ageda bezperako kantu-erronda

Ikastetxeetako bi ikasle talde eta herritarrez osaturiko hirugarrena Santa Ageda bezperako kantu-erronda egitera irten ziren, otsailaren 4an. Helduena Etxeberrietan hasi eta Goikoplazan amaitu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Gabonetatik hona, eguraldiari erreparatu behar zaio edozein ekitalditan parte hartu aurretik. Zorionez, euri-girotik salbu geratu zen Santa Ageda bezperako kantu-erronda.

Aita Larramendi ikastolako eta La Salle Berrozpeko ikasleak hasi ziren kantuan, bazkalostean hasita. Eguna ilundu ahala, Manuel Larramendi Bazkunak deitu zuen taldearen hotsak barreiatu ziren herrigunean.

"Otso beltza", "Santa Ageda"... kantu ezagunak, tradizio luze-koak, abestu zituzten Andoainen. Elizondo tabernan amaitu zen kalejira. Ondoren, hainbat lagunek segida eman zioten egunari Ontza elkarteko afarian.



"Otso beltza", "Santa Ageda"... kantu ezagunak, tradizio luze-koak, abestu zituzten Andoainen. AIURRI

Urnietan, Kantazaunen eskutik



Iluntzean ekin zioten kantu-errondari. AIURRI



Kantu-errondaren bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI



Kantu-errondako kideak, irteerari ekiteko prest. AIURRI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Bi herrietako taldeak, elkarrekin, Ganbara tabernan. Hainbat bertsoaldi ikusgai Aiurri.eus web orrian. AIURRI

Herriartekoa, Ganbaran

Abian da Gipuzkoako Herriarteko Bertso Txapelketa, 57 taldeen parte-hartzearekin. Hala, Andoaingo eta Hernani III aritu ziren lehian, aurreko ostiralean. Hernaniarrek eskuratu zuten txapelketan aurrera egiteko txartela Ganbara tabernan

Xabier Lasa ANDOAIN
Zazpikotea aritu zen kantari: Xabat Pagola, Andoni Mujika, Andoni Rekondo eta Bakarne Urreaga hernaniarrak, batetik; eta Ion Beloki, Aritz Eskudero eta Jon Eskudero andoaindarrak, bestetik. Hamar ariketetan neur-tu zituzten indarrak bi taldeek: binaka librean sei minutuz; binaka, gaia emanda, zortziko txikian hiruna bertso; bakarka lau oinak emanda, hiruna bertso; binaka gaia emanda, zortziko handian hiruna bertso; bakarka, lehen puntua emanda, hiruna bertso zortziko txikian; binaka gaia emanda, hamarrek txikain hiruna bertso; taldeka gaia emanda, kopletan; bakarka, amaiera-ko puntua emanda, bi bertso; binaka launa bertso, hiru pun-tuko koplekin; azkenik, binaka, lau minutuz librean, puntuka. Bertso saioari lasiera eta bu-kaera emateko, legezko agurrak abestu zituzten.

Ganbarako saioa
Grazia handiko bertso-saioa egiteko asmoz agertu ziren bi taldeak Ganbara tabernan an-

tolatu zuten saiora, eta maiz lortu zuten hori auditorioa lepo jarri zuten bertsozaleen goza-menerako.
Ohiko lehenbiziko agurretik hasita antzeman zuten ikusleek elkarri zirika aritzeko zekarten grina. Hona zenbait ale, elkarri botatakoak:

ANDOAIN
Aritz Eskudero:
Anatx nahiz eta Urnietan bizi haiekin ezin ezer irabazi, horrengatik joan da Hernanira. Txapeldun asko bizi den herrira. Barkarnek beti jotzen du aurrera, omen dator egurra ematera. Bera izango da guretzat sorpresa Hernanik daukan aldeko promesa.

Ion Beloki:
Korrika eta dantzan oso ona, parrandan ere badaukazu sona. Xabat, aritu ginen Sanjuanetan, ondo aritzen zera tabernetan.

Jon Eskudero:
Azkenekoa Andoni Rekondo. Gu ote gaude ganbaratik ondo?, hau baita bertsoan profesionala, nahiz ta Kaletxikin ez zirudin ala.

Hirurak:
Euskal Herriko bertso eskola onena omen dela
Hernanin dagoena.
Gu inoiz joan gabe bertso eskolara, hona etortzen atrebitu gara. Isiltzen bagara edo egin poto, zuen txaloekin egin nahi dugu topo.

HERNANI III
Xabat Pagola:
Hernanitik gatzoz seikote apaina, emango al digute meriendatzeko aina? Ingoaldu pentsatzen datoz hauek baina zuen malkoen bila gatzoz Andoaina.

Bakarne Urreaga:
Beloki musikari fin edo aditu, bere galtzetan ere ezin da kabitu. Hemendik Hernanira nahi zuen aritu, baina gure taldean ez dugu ametitu.

Andoaingo-Hernani III, aurrez aurre



Eskudero anaiak eta Beloki bertsolariak. AIURRI

Puntuka, Andoaingo taldea Andoaingo ordezkatuz hirukotea aritu zen: Ion Beloki, Aritz Eskudero eta Jon Eskudero. Gai-jartzaile lanetan, bestalde Unai Ormaetxea. Eta epaimahaian, Arkaitz Lasarte.



Hernani eta Urnietako bertsolariak. AIURRI

Hernani taldea Hernanitik kantari aritu ziren, Xabat Pagola, Andoni Mujika, Andoni Rekondo eta Bakarne Urreaga. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Amaia Otxotorena. Epaila taldean aritu zen, bestalde, Oier Iurramendi.

Andoni Rekondo:
Jon telebistarekin hasi da tratuan, oraintxe ikasi du euskara batuan. Biba Zuetikan heldu da gaurkoan, bere jefa bigarren ta bera kanpuan.

Andoni Mujika "Anatx":
Aldamenian dago beste Eskudero, remontista omen da, remontista edo. Berak uste dala Retegi primero, baina txapa azpira botako du gero.

Buruntzaldeko taldeen artekoa
Beraien arteko txapelketa da, eta hortik erabakiko da nork egingo duen aurrera. Dagoeneko badakigu Astigarragak Hernani II kanpoan utzi zuela, eta ondoren, Hernanik lekua hartu zuela. Hernani IIIk, berriz, Andoaingo gainditu zuen joan den ostiralean.

Otsailaren 27an, Zubietan, aurrez aurre ariko dira Zubietan eta Lasarte-Oriako "Earka".
Azkenik Xoxokan, martxoaren 14an, hiru taldek jokatu dute finala: jada sailkatu diren Hernani I eta Hernani IIIk, eta Zubietan garaile ateratzen denak, alegia.

"Emaitza ona lortzea motibagarria da"

PAULA TINEZ URNIETAKO OREKA TALDEKO ARDURADUNA

GIMNASIA ERRITMIKOA Sortu berria da kluba, Tinezen eskutik. Prestaketa-saioetan murgilduta daude, lehiaketak bazterrean utzi gabe



Iraia Mayordomo, Maren Egurbide, Maria Otero, Leyre Moreno eta Iraia Berasarte. Erdian, zutik, Paula Tinez. AIURRI

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Urnietako Kiroldegira hurbildu gara Oreaka talde berriaren mar-txa gertutik ezagutu asmoz.

Zer dela eta erabaki zenuen klub berria sortzea?

Urnietan kirol jarduera ezberdina eskaintzeko aukera ikusi genuen eta, egia esan, lehen pausoak onak izaten ari dira. Familia ugari hurbildu dira Oreaka. Oso gustura gaude.

Instalakuntzei dagokionez, eskaintzen zaizuen egokia dela uste duzu?

Bada beti hobetzeko aukera zeren eta kirol jarduera asko dau-

de hemen. Eskubaloiak, adibidez, indar handia du Urnietan.

Jubenil eta senior mailan lanketa maila oso altua izaten da. Zure iritziz, zer nolako meritua dute dantzariak?

Gimnastak ilusio handiz ari dira eta lehiaketan egindako lana nabari da. Gogor entrenatzen ari dira, egunerokoan esfortzu handia eginez. Gustura antzematen zaie.

Nola prestatu duzue Bergarako lehiaketa?

Taldearen kasuan bi minutu eta erdiko dantza izan zen, eta, ba-

karkako ariketan, minutu eta erdiko koreografia. Irailean hasi ginen entrenatzen, lehenengo hilabetea aparatuekin trebatzeari ekin genion, fisiko pixka bat landu eta, urria aldera, dantzarekin hasi ginen. Hilabete asko izan dira dantzak prestatzen, entrenatzen, probatzen, aldatzen eta abar.

Lehen lehiaketan maila handia zegoela esango zenuke?

Bai. Orokorrean nabari da lehenengo fasea dela, denak iristen baikara urduri. Eta, oro har, maila dago.

"Bergarako lehiaketan egindako lanaz oso harro gaude"

IRAIA BERASARTE ETA IRAIA MAYORDOMO TALDEKIDEAK

Zer nolako esperientzia izan da Bergarako?

Iraia Mayordomo. Batzurentzat bakarka egiten zuten lehenengo txapelketa izan zen. Baina esperientzia polita izan da, irabazi genuen eta egindako lanaz oso harro gaude.

Iraia Berasarte. Nire kasuan ere ez zen lehen aldia izan. Egia esan, oso gustora eta pozik egon nintzen.

Taldearentzat zein balio du emaitza onak eskuratu izana?

Iraia Mayordomo. Pozgarria da gure esfortzua balio izan duelako. Erakutsi nahi genuena bistaratzea lortu dugu.

Nolako izan da zuen piezen lanketa, taldea eta bakarka?

Iraia Mayordomo. Taldea, "El juego del Calamar" telesailaren abestiarekin dantza bat sortu dugu. Oso berezia eta dibertigarria da, eta denen gustukoa da. Bakarkako dantzaren doinua gimnastaren gustuaren arabera aukeratzen da.

Zailtasun handiko lehiaketa izan da?

Iraia Berasarte. Lehenengoa zenez, urduri geunden eta horrek eragina izan zuen. Baina, oro har, uste dut oso ondo joan zela.

Atzetik datozen gimnastentzat eredu zarete.

Iraia Mayordomo. Bai, txikiak guk egiten diogunari jarraipen handia egiten baitiote. Nik txikitan berdin jokatzan nuen. Presio pixka bat bada gudan, txikiak guri begira daudelako. Gauzak ondo egitean haiei erakusten diegu eurek ere posible dutela.

Gimnasia erritmikoa hain ezaguna ez den kirol bat izanik, korrontearen aurka zoaztela sentitzen duzue?

Iraia Mayordomo. Desabantaila izan daiteke, baina aldi berean geroz eta ezagunagoa da.

Iraia Berasarte. Gimnasia erritmikoa egiten ari naiz zortzi urte nituenetik eta garai horretan ere ohikoa zen horretan aritzea.

Hurrengo erronka Tolosan duzue, martxoan. Dagoeneko lehiaketa hori prestatzen hasi zarete?

Iraia Berasarte. Bai, duela hilabete hasi ginen. Bergarako igoz, burubelari murgildu gara Tolosara topera iristeko.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira aurtengo erronkak?

Iraia Berasarte. Ondo pasatzea, disfrutatzea, gurea ondo egitea eta nire kideekin eta entrenatzailearekin gustura egotea.

Iraia Mayordomo. Hori da. Egindakoaz harro egotea, zer egiteko gai garen demostratzea eta, garrantzitsuena, disfrutatzea.

Bergarako emaitzen ostean, taldea sasoi onean dagoela uste duzu?

Bai. Emaitzek ez dute beti helburu izan behar eta hori gimnastek ere badakite. Baina motibazio bat da emaitza on bat lortzeko. Entrenatzaile modura, oso pozik nago beraiekin.

Presioa eta eskaera altuak izanik ere, taldea disfrutatzen ari dela esango zenuke?

Bai, esaten diet hori dela garrantzitsuena: gustura egonez gero, emaitzak eta hobekuntzak etorriko dira.

Alebin taldea baduzue, eta asteburuan Donostian aritu ziren. Nolako izan zen haien esperientzia?

Bai, larunbatean lehiatu zuten Donostian eta oso gustura daude. Landutakoa erakusteko aukera izan dute eta, orokorrean,

lan oso polita egin zuten. Gustura entrenatzen ari dira eta oso pozik daude.

Martxoaren 14an hurrengo erronka izango duzue, dagoeneko horren prestaketa nolako izango den antolatu duzu?

Bai, prestaketa ez da asko aldatuko, lehenengo fasean gure maila neurtzeko aukera izan dugu, eta gainera, txapelketa hori baino lehen beste bi lagunarteko lehiaketa ditugu. Aldatu beharreko gauza txikiak aldatzeko edo moldatzeko aukera izango dugu.

Urte honi begira, zein dira entrenatzaile gisa taldearekin dituzun helburu nagusiak?

Gimnastak gustura etortzea entrenatzera, egunero ikastea eta Oreakan pozik jarraitzea.



Andoaingo Duatloia, iaz. AIURRI

Andoaingo II. Duatloia, hilabete barru

DUATLOIA Zumeatarra Triatloi Taldeak Andoaingo Duatloiaren II. edizioa antolatu du

Erredakzioa ANDOAIN
Zumeatarra Triatloi Taldeak Duatloiaren II. edizioa antolatu du eta hilabete eskas falta da martxoaren 14rako. Arratsaldeko 16:00tan hasiko da Sprint formatuko proba eta partaideek 5 kilometro korrika, 20 bizikletan

eta beste 2,5 gehiago egingo dituzte korrika. Ibilbidean berrikuntzak egingo dituztela iragarri dute antolatzaileek. Izen-ematea web.rockthesport.com webgunean egin behar da. Federatu eta open mailakoa denez, partaidetza irekia da.

Laster, Matx egitasmoan

FUTBOLA MATX Aiurrik eta TOKIKOMek sustatzen duten atari digitala da eta bertan kirolariak dira protagonistak. Egunotan, Ubitarten egin da grabaketa. Aurretik, inguruko talde gehiago izan dira MATXeko protagonistak: Leizaran eskubaloiko senior mailako gizonetakoak, Urnieta KEko futboleko gorengo mailako neskek eta Urnieta KEko eskubaloiko gorengo mailako mutilak.



AIURRI

FUTBOLA Hiru puntu baino gehiago daude jokoan

Erredakzioa ANDOAIN
Elgoibar taldeak 0-1 garaitu zuen Euskalduna, Ubitarte zelaian. Ohorezko erregional mailan, asteburu honetan, partida garrantzitsua jokatu da Hernanin. Sailkapenaren atzealdean dauden bi taldeak elkarren aurka ariko dira. Jokoan dagoena, beraz, hiru puntu baino gehiago dira. Partida Zubipen da, larunbat honetan, eguerdiko 12:00tan hasita.

SAILKAPENA	
	P
13 Urola	20
14 Orioko	20
15 Deusto	19
16 Mutriku	17
17 Hernani	16
18 Euskalduna	15

Emakumezkoak, igoera fasean
Gorengo erregional mailan garaipen argia lortu zuen aurreko asteburuan, Hondarribia taldea 6-0 garaituz. Inauterien ostean Usurbilen dute partida.



Imanol Ansa, Urnietako haurrez inguratuta. AIURRI

Ansak hanka bat du Kutxabank Masters Txapelketako finalean

ERREMONTEA Ligaxkatik bi finalista aterako dira eta, itxura guztien arabera, urnietarra bertan izango da

Erredakzioa HERNANI
Ansa II.ak modurik onenean hasi du Kutxabank Masters Txapelketako ligaxka, Juaneneari irabazita (30-8). Ez dezagun ahaztu Juanenea dela egungo banakako txapelduna. Markagailu honekin Juanenea -1 punturekin da sailkapenean. Ansak, aldiz, 4 puntu ditu. Beraz, Urnietako aurrelariak hanka bat du finalean. Partidak ez zuen ia historiarik izan: markagailuak bere kabuz hitz egiten du. Ansaren nagusitasuna erabatekoa izan zen hasieratik amaieraraino. Urnietakoak berea egin zuen, baina Saldiaskoa bere mailatik urrun egon zen. Ansak hamabost tanto egin zituen saketik eta hamalau piloteoan Juanenearen akats baten ondorioz. Saldiasekoak, aldiz, zazpi tanto egin zituen piloteoan eta bat saketik. Bien arteko aldea ikaragarria izan zen.

Irabazlea hobeto egon zen joakoaren alderdi guztietan. Lastima zirrara edo jolas gehiagorik gertatu ez izana. Partidak 30 minutu inguru iraun zuen. Partida 0-6ko partzialarekin hasi eta 2-14, 3-22, 8-30era iritsi zen. Gogorra da esatea, baina amaiera aldera Juaneneak zerbait makillatu zuen eskandaluzkoa izan zitekeen markagailua.

Ansa II-Barrenetxea IV, asteburu honetan
Ligaxkak aurrera darrai, bi jokalaririk onenen arteko partidarekin. Larunbat honetan, Galarretan, 16:30ean hasita.

BARRENETXEA-ANSA, KUTXABANK MASTERS TXAPELKETAN, ASTEBURU HONETAN

OTSAILAK 14

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA

JAI ALAI

MASTERS

TXAPELKETA 2026

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

GOIKOETXEA V · GOIKOETXEA VI VS

DESKARGA · ZUBIRI

2. PARTIDA (KUTXABANK MASTERS TXAPELKETA)

BARRENETXEA IV VS ANSA II

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

ALDABE · JUANENEA VS

SEGUROLA · AZPIROZ

KORRIKA



AEKko Xabi Gartzia eta Ane Elordi eta Errigorako Adriana Urmenetak eta Irati Abio, oholdta gainean. ANBOTO

Errigora omendu du Korrikak

Berriki, AEKk ekitaldia egin du Durangoko Plateruenean eta bertan adierazi zutenez, Korrika legez, "ideia sinple bezain ausart moduan jaio zen Errigora, eta denborak erakutsi du arrakastatsua eta bikaina dela"

Erredakzioa ANDOAIN

Aretoa euskaltzalez bete-betea, jai giroa izan zen nagusi ekitaldia hasi aurreko minutuetan. Kittu musika taldeak euskal kantuak abesten jarri zituen bertaratutakoak, harik eta Anabel Arraiza eta Aritz Ganboa aurkezleek ekitaldiari hasiera eman zioten arte. Lehen hizlaria **Xabi Gartzia** AEKren nazio kontseiluko kidea izan zen. Errigoraren sorrerak gogoratu zituen: Korrika legez, "ideia sinple bezain ausart moduan jaio zen, eta denborak erakutsi du arrakastatsua eta bikaina dela. Bada beste antzekotasun bat Errigoraren eta Korrikaren artean: Errigora eskuz esku, fisikoki eta natural zabaltzen da, Korrikaren lekukoa bezalaxe".

Segida eman zion **Ane Elordi** Korrika arduradunak, AEKk eta Errigorak printzipioetan bat egiten dutela azpimarratzeko: "Helduen euskalduntzea dugu erronka eta helburu, eta alor horretan ere bidelagun dugu Errigora".

Errigoraren izenean, **Adriana Urmenetak** eta **Irati Abiok** AEKri esker ona adierazi zioten: "Es-kerrak eman nahi dizkiogu Korrikari, bere 24. edizio honetan Errigoraren lana omentzeagatik. Ekimen gutxiak daukate urtetik urtera herri honen grinari bizirik eusteko gaitasun magiko hori, eta, dudarik gabe, Korrika horietako bat da. Eta, nola ez, Errigorako kideongan ere eragiten ditu bizipoz eta harrotasun horiek edizio orotan".

Enbaxadore berriak

Ekitaldian, Errigorako panpinak aurkeztu zituzten: Orburutxo eta Zainzuriñe. Korrikak iraun bitartean bi pertsonaia horiek ezustekoren bat emango dutela adierazi zuten. Xehetasun gehiago laster emango dute.

Atharratzerako prest

24. Korrikak Atharratzeko plazatik (Zuberoa) irtengo du martxoaren 19an. Lekukoak hamai-ka egun egingo ditu egun eta gau geratu gabe, harik eta martxoaren 29an Bilboko Areatzara iristen den arte. "Euskara gara" izango du eslogan, eta lasterkari-ek Zetak taldearen erritmora egingo dute korrika. Eskualdeko euskaltzaleek ordu txikitan egingo dute Korrika, aurtan.

Euskararen aldeko ekimenak, biak



AEKk Errigora ekimena aintzat hartu du edizio honetan. ANBOTO

AEKren adierazpena "Errigora eskuz esku, fisikoki eta natural zabaltzen da, Korrikaren lekukoa bezalaxe".



Topa eginez amaitu zuten omenaldi-ekitaldia. ANBOTO

Orburutxo eta Zainzuriñe Errigorako maskota berriak dira eta Korrikan ezustekoren bat ematekoak direla iragarri dute.



Topa eginez amaitu zuten omenaldi-ekitaldia. ANBOTO

Topa Omenaldi-ekitaldia ardo kopa bana eskutan amaitu zuten bertaratu guztiek, topa eginda. Ondoren, bazkaria egin zuten.

"Qualia", jendaurrean

Eduardo Arreseygorrek eta Joxema Langarak elkarlanean egin duten dokumentalaren estreinaldia egin zuten Basteron, joan den ostiral iluntzean. Bulkada bat du lanak: Ikusmen urritasuna ez da oztopo oholtzara igotzeko

Xabier Lasa ANDOAIN

Dokumentalean ikusmen urritasuna daukaten Goyo Santalla, Pakita Zunzunegi eta Inmaculada Ferrero Oroimenak antzerki taldeko antzerkigileak dira protagonista, eta lehenbiziko biak izan ziren Basteron ekitaldian. Txalo zaparrada jaso zuten egileek eta protagonistek Basteron.

Langarak antzerkigintzan eta Eduardo Arreseygorrek artearen munduan pilatu duten eskarmentua uztartu dituzte, eta *Qualia* izan da ikus-entzunezko emaitza. Alde horretatik, proiektzioaren ostean, Langarak azaldu zuen biei ere nolaz sortu zitzaizen dokumentala egiteko premia. "Oroimenak antzerki taldearekin egin dugun ibilbidean, normaltasuna ezarri nahi izan dugu hasieratik. Eszenarioetara igo



Andrea Parte Donostiako ONCEko zuzendaria, Goyo Santalla eta Pakita Zunzunegi aurrean, eta Eduardo Arreseygor eta Joxema Langara atzean, Basteron. AIURRI

izan garen guztietan, antzerkia egiten duen talde amateur baten gisa azaldu gara, ez antzerkia egiten duen talde itsu amateur

baten gisa. Ibilbidean, ikasi dugu ikusmen urritasunaren zailtasunei aurre egiten, eta teknike-tan trebatu gara baldintza ho-

rietan jarduteko. Horrela, aspaldidanik neukan buruan gure esperientzia ikus-entzunezkoren batek jaso zezan, eta ideia horrekin agertu zen Arreseygor".

Arreseygorrek, ikus-entzune-koari itsatsi nahi izan dioten filosofia azaldu zuen. "Ez genuen ohiko dokumental bat egin nahi, zeinak kolektibo baten historia kontatuko zuen. Argi geneukan ikusmen urritasun duten aktoreek behar zutela izan subjeto, eta beren psikologiatik bideratu behar zela lana".

Alde horretatik, aktoreetako batek, Pakita Zunzunegik Tolosako bere etxetik Donostiara egiten duen bidaia da ikus-entzunezkoaren hari nagusietako bat. Era horretan, itsu horien larrutan jartzeko goi asmoak bultzatuta, lanketa bisuala eta esperimentalak egin duela aitortu zuen Arreseygorrek.

Sormen-prozesuan pertzepzio subjektiboaren kontzeptua oso kontuan hartu izan dutela ere adierazi zien Arreseygorrek Basteron bildu ziren ikusleei. "Ikusmenetik, usaimenetik, uki-menetik... heldu daiteke pertzepzio hori. Gizakiek berbera eduki dezakegu hein handi batean,

baina badago zati bat nork berea daukana, eta pertsonala, intimoa eta besterezina dena". Filosofia psikologikoaren arloan pertzepzio hori izendatzeko erabiltzen den kontzeptua, *Qualia*, jarri diote izenburua dokumentalari, hain zuzen.

Pakita Zunzunegik eta Goyo Santallak ere hartu zuten hitza Basteron, eta bat etorri ziren adierazterakoan ikasketa-prozesu aberasgarria egin zaiela antzerkigintzan Langara zuzendariarekin eta Oroimenak taldearekin egin duten ibilbidea, eta aldi berean, ikus-entzunezkoaren grabaketan ere asko gozatu dutela.

Qualia dokumentalaren emaitzari bukaera eman aurretik, entzule batek hausnarketa egin nahi izan zuen gizakiok geure buruaz eduki ohi dugun pertzepzioaren gainean, "ikusmen urritasunik ez daukagunik ez gara ohartzen zeinen pribilegiatuak garen. Ikusi dugun dokumentalak begiak irekitzeko balio diezaguke. Antzekoak beharko genituzke, gortasuna, mututasuna, mugikortasun arazoak edota beste hainbat urritasun dauzkaten pertsonen gainean".



ANDOAINGO UDALA

Zorionak, Jesus!

Jesus Viña Oterok 100 urte bete ditu aste honetan eta andoaindarrak Udala agintarien bisitaldia jaso zuen etxean bertan. Udalaren izenean, Andoni Alvarez Lete alkateak eta Haizea Barandiaran zinegotziak

oroigarri bat eman zioten opari, udalaren eta herriaren izenean; lore-sorta bat ere eman zioten. Argazkian, pozarren ageri da Jesus, udal agintariez eta etxekoez lagunduta.

Gizarte-kohesioa hizpide izango dute Andoain

Jardunaldia antolatu dute, Urigainen, datorren otsailaren 21ean

Erredakzioa ANDOAIN

Movimiento político por la unidad, Fundacion Igino Giordani eta Oreki Paztea ageri dira antolatzaileen artean. Sustatzaileen artean da Mikel Arregi andoaindarra. Zer da Movimiento político por la unidad (MPU)? Hainbat alderdi eta joeratako politikarien nazioarteko mugimendua da. Munduko ordena justuago eta anaiartekoago bat lortzeko konpromiso komunak batzen ditu. Mugimendua Italian sortu zen, zehazki Napolin, 1996an. Haien garrantzitsua da jarduera publikoaren ikuspegia aldatzea: anaitasunak funtsezko zutabea eta jarraitu beharreko lan-metodoa izan behar du.

Hala, Herritarrentzat, gizartearentzat oro har eta alderdi politikoentzat irekita daude.

Kasu honetan, politikariei laguntzen eta entzuten irakasten saiatzen dira, eta "anaitasuna kategoria politiko gisa" defendatzen dute.

Jardunaldia Urigain Etxean: Otsailak 21, larunbata

10:00 Ongietorria.

10:15-11:30 Gizarte-kohesioari buruzko hitzaldi-solasaldia.

Sebastian Mora Rosado, soziologian doktorea eta Elizaren Gizarte Doktrinako masterduna.

11:30-12:00 Atsedendia, kafea.

12:00-12:45 Foessa txostena, Gipuzkoako errealitate sozialera egokitua, Jose Emilio Lafuente Cáritas Gipuzkoako idazkari nagusiaren eskutik.

12:45-13:15 Solasaldia.

13:15 Amaiera.

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Malen Agirre
"Marraztu gabeko irudiak".
Ohiko ordutegia,
Bastero Kulturgunea.

ANTZERKIA

ANDOAIN "Rikardo III eta NI"
"Ba al du moralaren kontzientziarik?
Noraino eraman gaitzake botere
goseak?" Shakespearen tragedia
historikoa oinarri.
19:30, Bastero Kulturgunea.
Otsailak 20, ostirala.

URNIETA "52 Hertz"

Ados teatroaren berriena: Joseba
Apaolaza, Ainhoa Aierbe, Dorleta
Urretabizkaia, Martxelo Rubio, Amaia
Irazabal
19:00, Sarobe.
Otsailak 22, igandea.



Andoaingo udaletxea. AIURRI

ANDOAIN "Nolakoa da Andoain LGTBIQ+ pertsonontzat?"

Herriko LGTBIQ+ errealitateetara gerturatu eta kolektiboko kideen beharriei
erantzateko bidea hasiko duela iragarri du Andoaingo Udalak. Horretarako,
lau saio ireki antolatuta dituzte, eta bertan parte hartzera gonbidatu nahi
dituzte herritarrek. Lehenengo saioa datorren otsailaren 25ean izango da,
Arrate frontoiko bilera-gelan, arratsaldeko 18:30ean hasita.
18:30, Arrate frontoia. Otsailak 25, asteazkena.

"Andoain herri zaintzailea bilakatu nahi dugu"

"Bizitza(k) zainduz, herria bizi!" izenburupean, ekitaldi-sorta iragarri du Andoaingo Udalak. Lehena, datorren otsailaren 21ean izango da Bastero Kulturgunean. Zaintza eta aurretiazko borondateak hizpide izango dituzte Olaia Aranaren eskutik

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Honako haxe da deitzaileen aurkezpena, ekitaldi-sortaren harira idatzi dutena: "Andoain herri zaintzailea bilakatu nahi dugu, elkarrekikotasunean oinarrituko den herri bizigarriagoa sortu. Sinistuta gaude zaintzek bizitza mantentzen dutela, eta gainera egunerokoan ongizatea eskaintzen digutela; hots gure existentziaren oinarri dira. Alabaina, ezin ditugu zaintzak esentzializatu eta erromantizatu. Alde batetik, askatasuna eta duintasunarekin lotu gaitzake; bestetik, zapalkuntza eta diskriminazioarekin. Egun, abusu egoera asko gertatzen



Zaintzari buruzko jardunaldia egin zuten, berriki, Andoain. AIURRI

diren eremu dira eta bidegabekeria horiei aurre egiteko lanean jarraitu nahi dugu. Andoain

herri zaintzailea bilakatu nahi dugu, elkarren ondoan herri bizigarriagoa sortu".



ZINEMA



ANDOAIN BASTERO
Flores para Antonio
Larunbata, 14. 19:30.
Igandea, 15. 19:30.
Aste., 16. 17:00, 19:30.

Evolution
Larunbata, 21. 17:00.
Igandea, 22. 17:00.
Song song blue
Larunbata, 21. 19:30.
Igandea, 22. 19:30.
Aste., 23. 17:00, 19:30.



ZORION AGURRAK



ANDOAIN Haizea
Haizea Rojo Arregik 9 urte beteko ditu otsailaren 17an. Familiaren partetik, zorionak! Eta orain bezain zoriontsu segil!



ANDOAIN Ane
Ane Etxezarreta Jauregik 11 urte beteko ditu otsailaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak etxekoan partetik.



ANDOAIN Naroa
Naroa datorren otsailaren 19an 11 urte beteko ditu. Segi horrela maitia, jator-jator! Askok maite zaitugu! Etxekoak



ANDOAIN Aitor
Datorren otsailaren 18an, Aitor, 6 urte beteko dituzu. Ondo ospatu eta segi jator. Muxu potoloa amona Begoña eta aitona Mikelen partetik. Zorionak!

Ekitaldi-sorta egingo dute, otsailetik ekainera.

Hitzaldia: otsailak 21, larunbata

- Izenburua: "Hitz egin dezagun gure zaintzaz. aurretiazko borondateak prestatzen".
- Hizlaria: Olaia Arana.
- Tokia: Bastero Kulturgunea.
- Ordutegia: 11:00-13:00.
- Hizkuntza: Elebitan.

Mahai-ingurua: martxoak 20, ostirala

- Izenburua: "Zahartzeko Manerak Euskal Literaturan".
- Hizlariak: Arantxa Urretabizkaia eta Yolanda Arrieta.
- Gidaria: Iratxe Retolaza.
- Tokia: Bastero Kulturgunea.
- Ordutegia: 18:00-20:00.
- Hizkuntza: Euskara.

Dantza-saioa: Apirilak 21, asteartea

- Gaia: Dantza garaikideko tailerra.
- Dinamizatzailea: Cristina Andreu (Klaap).
- Tokia: Bastero Kulturgunea.
- Ordua: 18:00-19:00.
- Hizkuntza: Euskara.

Hitzaldia: Apirilak 23, osteguna

- Izenburua: "Bideragarriak al dira etxe kolaboratiboak Andoain?".
- Hizlaria: Koldo Telleria.
- Tokia: Bastero Kulturgunea.
- Ordua: 17:30-19:30.
- Ordua: Euskara.

Mahai-ingurua: Maiatzak 21, osteguna

- Gaia: "Bizitza independenteak eta desgaitasuna".
- Hizlariak: Mikel Malkorra (Elkartu, Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen federazio koordinatzailea) eta Javier Arroyo Mendez (Foro de vida independiente y divertad).
- Tokia: Bastero Kulturgunea.
- Ordua: 17:30-19:30.
- Hizkuntza: Gaztelera.

Mahai-ingurua: Ekainak 11, osteguna

- Gaia: "Zaindu ditugun zaintzaileak eta ehundu sare komunitarioak".
- Maitelan Zaintza Kooperatiba
- Tokia: Bastero Kulturgunea.
- Ordua: 17:00.
- Hizkuntza: Gaztelera.